

ASTEIZ GEU

GEU elkartearen babesarekin

82.zk.
1999ko
urria


FRANKEO ITUNDUA 48/27



PLAN BIKAINA

EUSKALDUNON GIDA 2000-2001

**EUSKALDUNOK
EUSKARAZ
BIZITZEKO
BEHAR DITUGUN
ZERBITZUAK
EZAGUTARAZIKO
DUEN GIDA**



Euskaldunon Gida, euskaraz atenditzen duten enpresa, profesional, merkatar, erakunde eta norbanakoak biltzen dituen gida da. Euskaldunez osaturik dagoen gida bakarra, inoiz Euskal Herrian egin den maparik osatuena da. Ez da euskarazko gida, euskaldunez osaturik gida baizik. Bi urtetik behin argitaratzen da eta abenduan kaleratuko den gida berrian 30.000 fitxa inguru agertuko dira.

**GIDAN AGERTU NAHI BADUZU DEITU
945 22 21 53 TELEFONO ZENBAKIRA (GEU GASTEIZ
ELKARTEA ETA ALDIZKARIA) ETA BEHAR DUZUN
INFORMAZIO GUZTIA EMANGO DIZUGU:
doan agertzeko aukera,
modulu desberdinak erosteko aukera...
Denetik eta denontzat!**

BELATXINGA MOKOGORRIAK
(*Pyrrhocorax pyrrhocorax*)

071 Arabako Natur Institutua



071 Arabako Natur Institutua

Gainzarain - Ani (945 - 24 66 06)



4. orr.
Termometroa.
Noiz gora?



5. - 8. orr.
Berri
Laburrak..



9. orr.
Kalea oinezkoen
esparruan barna



10. orr.
"Agur Campeon"



11. orr.
Geure eskutik udako kan-
paldi ibiltariak gazteei
zuzenduak




14. orr.
Eneko Etxebarrieta:
"I'm Kurdish!"



15. orr.
Piti - Pata
Ikasturte berria



18. orr.
Euskal
Pentsamendua



22. orr.
Ministerioaren
"plan bikaina"



24. orr.
Daewoo,
elkar-hartze zaila



26. orr.
GEUekin Mendira



28. orr.
Agenda. Antzerkia
euskaraz

GEU GASTEIZ, Gasteizko Euskaldunon hilabetekaria

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a - Telefona eta Faxa: 945 22 21 53
e-mail: geugaste@grn.es **Zuzendaria:** Estibx Breñas Glz. de Zarate. **Erredakzio-**
batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Karlos Fdz. de Betoño, Estibx
Breñas eta David Alvez. **Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte,
Edurne Begiristain. **Argazkiak:** Karlos Fdz. de Betoño eta Edorta Sanz. **Maketa:**
DAV '99. **Komikia:** Iñigo Sarasola. **Kolaboratzaileak:** Ania Ibasate, Iñigo
Kastresana eta Edurne Rey. **Publizitatea:** Karlos Fdz. de Betoño. **Banaketa ardu-**
raduna: Txipi Ormaetxea.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) · Ale Kopurua: 2.500 · LG: VI-582/92 · ISSN: 1133-0988 ·
Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez
du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Gasteizko Udala
Kultura Saila



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

PREMIAZKO TELEFONOAK

S.O.S. DEIAK:

..... 945 112

UDALTAINGOA:

..... 945 092

INFORMAZIOA:

..... 945 010

SUHILTAILEAK:

..... 945 16 11 11

GURUTZE GORRIA:

..... 945 22 22 22

D.Y.A.:

..... 945 28 10 20

ERITXEETAKO URGENTZIAK:

..... 945 24 44 44

AUTOBUS GELTOKIA:

..... 945 25 84 00

RENFE:

..... 945 23 02 02

AIREPORTUA:

..... 945 16 35 91

ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:

..... 945 28 20 00

HIRI-BABESA:

..... 945 16 11 61

UDALETXEA:

..... 945 16 11 00

FORU ALDUNDIA:

..... 945 18 18 18



Kan Groak

Zerrenda berria osatuko dugu. Bertan agertzea nahi izatekotan deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira eta zehaztu zure ordutegia.



Juan Ayala plazako lurpeko aparkalekuan dauden iragarkiak oro era traketsean idatziak eta ezohiko euskara uler-tezin batean agertzen dira: "Orduko ordutegiak", "7etatik 23tara", "Larunbata 24 ordu ire-



SERVICIO PARKING POR HORA HORARIOS

DE LUNES A JUEVES DE 7 HORAS A 23 HORAS
VIERNES DE 7 HORAS A 24 HORAS
SABADO ABIERTO LAS 24 HORAS
DOMINGO ABIERTO HASTA LAS 23 HORAS
HORARIOS ESPECIALES AGOSTO Y FESTIVOS

PARKING ZERBITZUA ORDUKO ORDUTEGIAK

ASTELEHENETIK OSTEGUNERA 7 ETATIK 23 TARA
OSTIRALETAN 7 ETATIK 24 TARA
LARUNBATA 24 ORDU IREKITA
IGANDETAN 23 ORDUTARA IREKITA
ORDUTEGI BEREZIAK ABUSTUAN ETA JAI EGUNETAN.

kita", "Igandetan 23 ordutara irekita", "Abustuan", "Sarkoikeriarekin alarma zentralera konektatuta"... Noiz arte?

Iñigo Kastresana

Geu SALMENTAK ALOKAIRUAK

Lokal bat alokatzen da tailer artistiko, artisautza tailer edo biltegiarako, hiri erdialdean, 20 m² ingurukoa eta oso ekonomikoa. 945 26 41 78 (15:00etatik 17:00etara Elena).

Errentan uzten da Opakuako mendian, Araba, 100m2ko etxola, 6000m2ko zoroan kokatua. Informazioa: 945 30 10 27, bulego ordutegian, Isabel.

Euskarazko hiztegia, Hiztegia 2000, salgai daukat. Batere erabili gabea dago, berri-berria. 1.500 ptan saltzen dut, dendetan 3.000 pta. balio du. Tf.: 945 28 10 67.

Paseoko bizikleta salgai. TREK markakoa, SIS shimano kanbioak; 18 abiadura; bost urte daukua eta egoera onean dago. Prezio erdian saltzen dut. 25.000 ptan. Tf.: 945 28 10 67.

CENTON markako tripodea salgai. Oso handia eta sendoa da, ia batere erabili gabea. Berri berria dago, pol-tsa eta guzti. 6.500 pta. Nire beharretarako gehiegi delako saltzen dut. 945 28 10 67.

Akriban dagoen harategia alokatzen da. Esparru zabala da eta ondo prestatuta dago. 945 24 08 65 Ana.

BESTEAK

21 urtetik gorako pertsona euskalduna behar da urte t'erdiko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko, 2 goiz eta 2 arratsalde. 945 14 36 86 (Itziar)

Ume bat zaintzeko, pertsona euskalduna behar da. Deitu 945 28 82 42 telefonora irailaren lehenengo astean edo saiatu irailaren 20tik aurrera.

Euskal Filologiako ikasle bat naiz eta datorren ikasturtean umeak zainduko nituzke. 20 urte, Gipuzkoakoa eta eta haurrekin ondo konpontzen naiz, lehengusuekin behintzat bai. Telf. 943 75 24 67. Egoitz.

Laredon apartamendua alokatzen da uda honetan, hondartza ondoan. 943 79 52 80. Karmen.

Pertsona euskalduna behar da 2 ume zaintzeko, 16:30etatik 18:45etara. Hilean bi asteartetan eguerdian ere bai (12:30etatik 18:00ak arte). Gavez deitu 945 24 55 40.

Bilbora edo Galdakaora egunero joaten den per-sona baten bila nabil gastuak konpartitzeko. 945 24 92 36.

2. D.B.H.ko matematika eta ingelesa euskaraz ematen dituen irakaslea behar da martxotik irailera, oinarritik hasteko. Maribel, 945 172 850.

DEIAK

Ohiko osasun sistemak asetzen ez bazaituzte, zatoz Sumendi osasunaren autogestioaren aldeko elkartera 945 22 65 03.

Ez hago bakarrik!! Hator Gay-tasunara. Informazioa, hitzaldiak eta eztabaidak, psikologi, sexologi eta lege aholkularitza... Bilerak asteazkenero. 945 25 77 66.

Esperanto Elkarte. Hizkuntza txikiak maite ditugulako, esperantoz mintzatzen gara. Zapatarri kalea, 29, behea.

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postaz: Pedro Asua, 2. 3.a faxa. 945 22 21 53

OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA

JOSE URUÑUELA KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE

RAMIRO DE MARETUA KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN

Etxebizitza...

Udal hauteskunde kanpainan alderdi politiko guztien adierazpen eta egitasmoek etxebizitza lege gintzaldi honetako erronka nagusia izango zela aurreikusi zuten. Kurtso politikoa hasita Jorge Ibarondok, Gasteizko



guztiontzat?

Etxebizitza zinegotzia, PPren Udal Gobernuaren asmoak azaldu zituen. Ibarondok azaldu duenez, etxebizitzaren eskariari erentzuzko dion plana jarriko du martxan Udal Gobernuak. Planak aginduta 11.000 etxe pasatxo egingo dira Gasteizen lege gintzaldiko lau urteetan.

Udalaren kalkuluen arabera 54.000 lagun dira Gasteizen etxebizitza nahi dutenak. Beraz, Ibarondoren helburua eskari horri erantzun eta aurreko jardunak utzitako defizita zuzentzea izango da.

Guztia abian jartzeko oinarriak diren lurak nondik aterako dituen, oster, ez du argitu zinegotziak, ezta prezioak kontrola-

tzeko neurririk hartuko duten edo zein portzentaia utziko duten babes ofizialeko etxeak egiteko ere.

Zabalgana eta Salburuako planak aurreko Udalbatzak erabaki bezalatsu aurrera ateratzen badira, lehenengo gunean ia 2.900 etxebizitza egingo dira eta bigarren 2.600 baino gehiago. Hiriburu inguruko herriak ere begiz jo ditu zinegotzi berriak eta Gometxa, Gaztelu, Elorriaga eta Berrostegetan etxe gehiago eta mota gehiagokoak egin ote daitezkeen aztertu behar dela azaldu du.

Oposizioko udal taldeek plana zehaztugabezia dela deritzote.

Udalbiltza

Arabako 47 herritako 159 hautetsik esku hartu zuten irailaren 18an Bilbon egindako sorrera ekitaldian. Horietarik bik, Iñaki Beraza, Aguraingo alkatea, eta Manu Allende, Gasteizko zinegotzia, batzorde eragile berriaren kide hautatu zituzten.

Aipatzekoa da Trebiñoko lau hautetsi, tartean Alfredo Oraa, Argantzuzgo alkatea, Bilboko ekitaldian egon zirela.

Irailaren 18an batzorde eragile berria hautatu eta adierazpen politikoa kaleratzeaz gain, martxan jartzeko urratsak ezarri zituen Udalbiltzak, lanean arituko diren talde desberdinak osotuz. Ondorioz, bi egun beranduago batzorde eragileak lehenengo bilera izan zuen, erakunde nazionalaren oinarriak jarrita, asanbladak onartutako egitaraua lantzen hasteko.

MULTIOPTICAS
Multieskaintzak

BONARDI
bilduma

3.400 Pta.
bakarrik

60 URTE baino gehiago

Armazoa + Kristalak 8.700* pta.tik aurrera

HAURRENTZAKO
betaurrekoak

Armazoa + Kristalak 8.900* pta.tik aurrera

Lente **PROGRESIBOAK**

19.500 pta.tik aurrera

*Lente zurientzako eskaintza ± 4 ESF. ± 2 CIL

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTICA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Larunbat arratsalde zabalik
Andre Maria Plaza : 5 - 8.30



3 HILABETEAN ORDAINZU ERREKARGURIK GABE

www.multiopticas.com
Bezeroaren arretarako telefona: 900 34 35 36

Hiru urtetan kalera!

Irailak ez du berri onik ekarri lan munduarentzat Gasteizen. Daewoo-ko langileen grebari Michelin lantegiko ugazabek egindako iragarpena gehitu behar zaio. Multinazional frantsesaren jabeek datozen hiru urteetan langileria-
ren %10 kaleratuko dutela jakinarazi dute. Michelinek 75.000 langile ditu European eta 4.500 Euskal Herrian, horietarik 3.000 inguru Gasteizko lantegian.

Jabeen asmoak komunikabideen bitartez jakinez geroztik bilera baterako deialdia egin zuten Gasteizko langileek, baina Estatuko agintariek hiru-lau hilabete pasa arte lantegi bakoitzarentzat dauden planak ez direla jakin-
go baino ez zieten esan.

Iragarritako neurriak guztiz ezustean harrapatu ditu Gasteizko lantegiko ordezkari sindikalak. Izan ere, Gasteizko lantegian indarrean dago oraindik Michelingo jabeek agindutako aurreko plantila-doiketa eta azken urteotan jada murriztu, eta aurrean bertan ere, murriztuko diren lanpostuak kontuan hartuta plan berriak eraginik ez izatea espero dute bertako langileek.

Michelingo ugazaba frantsesek murrizketa errentagarritasuna handitzeko "beharrezko neurria" dela adierazi dute. Sindikatuek, aldiz, enpresak azken urtean izandako mozkinak gogoratu eta iragarpenak estatuek jubilazio planak aurrera eramateko dirulaguntzak ematea bila dezakeela gaineratu dute.



Museo berriaren inguruko artisten iritzia

Gasteizko 30 bat artista Arabako Diputazioaren zuzendaritzapean eraikiko den Arte Garaikidearen Euskal Museoari buruzko iritzia obra batean islatzen konbentzitu zituen Iñaki Larrinbek eta bildutako lan guztiekin erakusketa antolatu du. Antolaketa ikusgai egongo da Zuloa Comics liburutegian irailean hasita azaroa-

ren hirura arte.

Erakusketari "Germen" ize-
na jarri zioten, horixe baitzen
artistei poemak, eskulturak,
koadroak edo komikiak egiteko
jarritako gaia: museo berriaren
hazia. Artistek museoari buruz
duten aburua jakitea garrantz-
izkoa iruditzen zaio antola-
tzaileari, erakundeek ez diete-

lako zer pentsatzen duten gal-
detu.

Larrinbek hiriko 130 artis-
tengana jo zuen ideia azaltzeko
eta, esan bezala, 30 izan dira
baiezkoa eman ziotenak. Ho-
rien artean, Coco Rico, Pablo
Milikua, Mintxo Cemillan,
Burgos, Imanol Marodan, Elena
Meno eta Blanca Garikoetxea.
Bakoitzak pentsatzen duena
islatu du, eta iritzi ezberdinak
dauden arren kritika ironikoa
da gailentzen den interpreta-
zioa.

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA:

BAT ERE EZ

Mateo Moraza kalea GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

EL
BAR
Kutxi

e
g
u
n
e
k
o
m
e
n
u
a

Gasteizko udalekuak

Gazteriaren Institutuaren zuzendari berria den Javier de Andresek Arabako Diputazioak datorren urtean gaztele-razko udalekuak antolatuko dituela iragarri du. Esan dute-
nez, aukera hori beharrezkoa da hezkuntzako hizkuntza-ereduekin bat datorren eredia eskaini ahal izateko.

Euskarazko udalekuek oso harrera ona eta elebidunek ere eskari garrantzitsua dutela onartu zuen De Andresek, baina bere ustez gaztelera-razkoak beharrezkoak dira "guz-
tien eskariari erantzun ahal izateko".

Arabako Aldundiak udaro eskaintzen dituen udalekuak EAEko hiru diputazioen artean antolatzen dira eta Bizkaia eta Gipuzkoakoek ez dute momentuz honen inguruan zer pentsatzen duten esan. Zenbat eskaera egingo diren ezin daiteke jakin, inoiz ez baita izena emateko aukera egon, baina 200 bat haurrentzako lekua egongo dela aurreratu du Gazteriaren Institutuaren zuzendariak.



URA: merke, merke

Euskal Herriko hiribu-ruen artean Gasteiz ura merkeen duena da Con-
sumer aldizkariak egin-
dako analisi baten ara-
bera.

Batezbeste bertako familia batek 15.000 bat pezeta ordaintzen du hi-
lero kontsumitutako uragatik. Donostian %20 gehia-
go ordaindu behar dute eta Bilbon %89 gehiago.



Gasteizen beste hiriburuarekin alderatuta ur gutxia-
go kontsumitzen dela egia bada ere, hiri guneetan
kantitate itzelak gastatzen direla agerian utzi du egin-
dako azterketak. Era berean, gastu handia egitea ez
dela diruz zigortzen salatu ere egin dute egileek,
horrelako neurriak kontsumo arduratsuagoa lor leza-
keelako.

Gasteizko uraren arduradunek kontsumoa orekatu
dezaketen neurriak ez hartzeaz gain, oso bestelako
politika eramaten dute, aurten uraren prezioa %3an
jaitsi baitute.

Lege hiltzailea

Atzeritartasun-legea hiltzailea dela dio Nieves Garcia Benito "Por vía Tarifa" liburuaren idazle-
ak. Nieves Garcia Benito gasteiztarra da, baina Andaluzian bizi da gaztetatik eta jaioterrira itzuli
da Estatuan etorkinek jasaten duten tratua sala-
tzen duen liburua aurkeztera. Liburuak hamaika
ipuin bildu ditu, guztiak Marokotik Andaluziara
pasatzen hiltzen diren lagunen kasuak salatze-
ko.

Garcia Benitok azaldu zuenez, 1989an arazo-
az jabetu zen patera bat hondoratu eta Tarifako
hondartzetan hamazortzi gorpu agertu zirenean.

Nievesek hainbat arlo ikutu ditu bere liburuan:
paterak antolatzen dituzten mafiak -gero eta uga-
riagoak direnak-, Andaluziara iristean aurkitzen
dituzten oztopoak,... Eta beste aldea ere azpima-
rratu du, Afrikatik iristen direnei laguntza emate-
ko antolatu elkartasun sarea, alegia, emigranteak
kostaldera iritsi bezain laster laguntza ematen
dietenen kontuak.

Idazleak bere poza agertu zuen Marokoko
argitaletxe batzuek liburua itzuli nahi dutela
jakinarazi diotelako.

LIBURUDENDA

axular

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Katangak



ikasturte berriari hasiera eman dio

Katanga faktoria kulturalak hasi berria den ikasturterako prestatu egitarauak berrikuntza nagusi bat du: pop-rock ikastaroak urte osora zabaldu direla. Lau urteetan pop-rock hamabostaldiak izan duen harrera onak bultzatuta hartu dute erabakia.

Ikastaroak musikazale oso sektore bereziarentzat direla zehaztu dute antolatzaileek, ohiko hezkuntzara ez jotzea erabakitzen dutenentzat, alegia. Udan hamabostaldiak antolatu direnean bezala, orain ere ikastaro eskaintza zabala prestatu du Katangak eta ikasleak musikagile profesionalak izango dira.

Egitarauaren beste partea ikuskizunei dagokiona da. Katangako arduradunen xedea pabilioia Gasteizen egiten diren musika adierazpen desberdinen bilgune bihurtzea da. Pop-rock eskolako ikasleek larunbatetako kontzertuetan joko dute. Honez gain, eta ostegunetatik hasita, hainbat ekitaldi desberdin ikus-entzuteko parada izango da kreatibitatez beteriko eremu honetan, igandeak erritmo eta joera berrientzat gordeko direlarik. Adi egon, hortaz, Katangak eskainiko digunari!!

Tinieblas Gonzalezen "Belea"

Tinieblas Gonzalez laudiarrek bere azken laburmetraia aurkeztu du Donostiako Zinemaldian, Edgar Allan Poe-ren poeman oinarritutako "Belea". Egia

esan, laburmetraia Cannes-en estreinatu behar zen, baina atzerapenengatik Zinemaldian egin behar izan dute agerpena. Tinieblas Gonzalez pozik agertu da bigarren aurkerarekin, Zinemaldiaren historian oso filme labur gutxi aurkeztu direlako.

Bere azken lana definitzean Edgar Allan Poeren poemaren filmaketa hutsa egin nahi izan duela adierazi eta oso obra landua dela azaldu zuen. Gary Piquer aktoreak poeta estatubatuarren papera antzeztu du, poema erretratuz. Grabazioa ingelesez egin da, Tinieblasek itzulpenarekin poemak indarra eta errima galduko zituela zeritzon-eta.

"Belea" egiteko 20 milioi pezeta izan ditu laudiarrek laburmetraia baterako dirutza dexente- eta zuzendariak dioenez, emaitza ikusita merezi izan du, aurrekontuaren zatirik handiena kalitatezko produktua lortzeko beharrezkoak ziren efektuak egiteko erabili baita.

Arabar antzerkia, Kalalunian ikusgai

Hiru talde arabarren antzezlanak taularatu dira iraila hasieran Tarregan, urtero lege, egin den antzerki ferian: Sobradun, Ñake eta Damian Muñozen dantza taldearen lanak. Sobradunek "No hay huevos", Ñakek "Cómicos muy peligrosos" eta Damian Muñozek bere azken dantza ikuskizuna erakutsi dute Katalunian.

Tarregakoa Europa hegoaldeko feriarik garrantzitsuenak da eta lanak jendarean antzezteko aukeraz gain, joaten diren programatzaile guztiekin harremanetan jarri eta kontratuak sinatzeko parada ere izan ohi dute parte hartzen duten taldeek. Aurten 600 bat programatzaile joan dira.

Taldeek ikuskizunak hiru eremutan banatzen dira: antzokietan, kalean eta antzerkilariek beraiek, batzuetan erakundeek laguntzaz, antolatu eta jarritako karpetan. Euskal taldeek karpa edo gune propioa izan dute beren lana erakusteko.



RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta kotoizko ebunak eskuz margotuak"
- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfno.: 945 13 33 59

ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

vitrales



MIKEL DELIKA

BEIRATE ESTUDIOA


Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ



1.- Ni oinezkoa izanik ondo iruditzen zait, baina gauza guztiek bezala, honek ere bere trabak ekar litzake. Gainera nahiko kale peatonal dauzkagu!

2.- Bai, argi dago beharrezkoak direla, bestela ezinezkoa izango zaigu erdigunera garraio bidez iristea.

Irati Fdz. de Lezeta. Ikaslea



1.- Hiria abegitsu eta garbi mantentzeko hiritarrek dute azken hitza. Gauza ez da oinezkoentzat jartzea, baizik berau errespetatzea, jakinik besteek ere norberak bezainbeste aukera duela hiriaz gozatzeko eta bertan eroso bizitzeko.

2.- Batez ere kotxez dabiltzanak kontuan hartuz gero, beharrezkotzat jo beharko lirateke.

Rafael Gonzalez



1.- Ondo deritzot, autoaren erabilpenerako okerrago ez den bitartean, oinezkoentzako gune gehiegiren erruz aparkatzeko arazoak etor baitaitezke.

2.- Bai, gauza batek bestea ez kentzea lortu beharko litzateke, hau da, peatonalizazioa aurrera eramaten den heinean, beharrezko parking-ak mantentzea.

Maite Barrera. Ikaslea

1.- Badakigu udal berria ere, aurrekoaren moduan, oinezkoen esparruen alde ageri dela. Zer iritzi duzu honen inguruan?

2.- Peatonalizazioa ondo egon daiteke, eta hiria bera biziki edertzen duela jakina da. Baina oinezkoen kale eta guneei batera, ez lirateke eraiki beharko parking berriak ere?

Ekainean martxan jarri zitzaigun udal berria, erdialdeko zenbait kale oinezkoentzat jarri eta Gasteiz etorbidea bera aldatzeko asmotan azaldu da. Bestetik, zenbait kaletan garbiketa bereziak egiten dihardu. Badirudi oraingo alkate berriak, aurrekoak legez, hiri lasai, abegitsu eta garbiago bat amesten duela. Hala ere, beste batzuetan bezala, gatazka piztuta dago, batez ere garraio lanetan ibiltzen direnen aldetik, Gasteizek modu honetan erosotasun eta zerbitzuetan atzerapauso bat eman dezakeela argudiatuz.



1.- Ez zait batere ideia ona iruditzen. Ni karneta lortzeko ahaleginetan eta, bestaldek, beste batzuk zenbait norantza eta bide debekatzen... Nahiko hiri politan bizi gara, zer gehiago nahi dugu!

2.- Bai, parking ugari behar dira Gasteizen, erdialdean ezinezkoa izaten da aparkatzeko lekutxoaren bat topatzea.

Mikel Gorostiza. Autoeskolan ikasle



1.- Oso ondo ikusten dut. Horrela denak oinez apur bat gehiago ibiltzea lortuko da eta hori ondo legoke, nagi xamarra gara-eta.

2.- Ulertu behar da garraio lanetan dabilzatenek oztopo ugari topatuko dituztela, beraz, kaleak oinezkoentzat gertatzekotan baldin badaude, guztiok izan beharko gaituzte kontuan eta antolamendu berezi bat behar izango da.

Laura Moreno. Ikaslea.



1.- Egon daitekeen arazoa Gasteizko trafikoarena da, baina beharrezko neurriak hartuz gero, garraio berezietarako edota zerbitzuetarako ordutegiak jarri..., ondo egon daiteke.

2.- Bai, noski. Lur azpiko parking pare bat falta ditu hiri honek.

Iñaki Manrike. Ikaslea.



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

• Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36

• Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

AGUR CAMPEON!

Ez al duzu uste, Raul?

Haizea eta euria,
abestia eta irrintzia,
beltza eta gorria,
mendia eta eguzkia.
Ez al duzu uste, Raul,
norbaitek gaua nolakoa den
kontatu behar duela?
Noiz elkartuko gara horretarako?
Gaur arratsaldean, bihar, etzi...
Jendeari esan beharko diogu.
Orain berandu da.
Itxi taberna.
Bagoaz etxera.



Hainbat astebururen bezperan

Arratseko zortzi eta erdiak dira San Cristobal auzoan. Negumina. Kaleko hotza tabernen eta lagunartean beroaz kamusten da. Osteguna da.

Asteburua laster dator; zernahitarako ilusioak eta asmoak, beraz. Garagardo batzuk, kalimotxoren bat edo beste, eta mendirako gogo piztu berria. Egitasmoak nahi adina, baina bi egun baino ez aurretik. Pirinioak, Aralar, Urbasa,... Edozein leku da on, baldin eta sabaiz, supazterrez, edontzi bat patxaranetz eta solasaldi atseginez horniturik badago.

– Ez zaiguk komeni berandu ibiltzea, mendi kluba ixten badigute kran-poirik eta pioletik gabe geratuko gaituk eta. Aizue, horretaz ari garela, forroa eraman behar al duzue? Gogoan al duzue neska-mutilekin joan ginen udaleku hartan kale gorrian egin behar izan genuela lo, han kuzkur-kuzkur eginda, elkarri beroa emanez? Ez zaiguk, bada, oraingoan beste hainbeste gertatuko, ezta?

– Tira, zuek biok bihar goizean joan merkatura janaria erostera, eta ogia oraingoan neurritz erosi gero!, beti sobera izaten diagu eta. Besteok arduratuko gaituk jendeari honen berri emateaz, eta ez ahaztu etxean kopetargia eta mahai-tresnak.

– Aizak! Hortik zoazak dantza-taldeko neskak! Harrapa itzak, su txikia eskatzeko.

– Aizak! Uztak Geu aldizkaria, gero izango duk-eta horretarako astirik.

ZUGAZUA, OLARIZUKO GIZONA

Bukatzeaz dagoen mende zoro honetan zehar Olarizu ez da beti gaur egun ezagutzen dugun bezala izan. Garai batean ez zegoen ez lantegirik, ez zaburik, ez asfaltozko errepiderik, ez argindarrik, ez kotxerik...

Mendiola herritik umetxo bat eskolatik etorri ohi zen, astoz, alai eta pozik... Eguneroko bete-beharrak etxean baino ez zituen egin behar. Gaur egun ez zuen hain goiz altxatu beharko, beranduxeago gosalduko baitzuen. Behiak bederatziak aldera jetzi behar zituen, olibak batzeko ordurik aproposenak... Oraindik minez gogoratzen du neguko goiz hotz batean Pakita nola esnatu zen erabat ikaratuta nik jetzi nahi nuelako.

Baina negu madarikatu hura ez zen atzera itzuliko eta goiz horretan ezkerreko masailan jasotakoa ez zuen inoiz ahaztuko. Orain, berriz, uda zen eta Pakita Zugazua umetxo bezain pozik esnatu zen. Bere baserrian, "Monasteriogureneko eraikinik

ederrenean", aitzak eta aiton-amonak esaten zuten bezala, gustura bizi zen udako oporretan.

Umetxoak behiak larreratzea zuen gustukoan. Atseginez egiten zuen Olarizuko zelaietara hurbiltzea eta hor, "Zuhatz" izeneko zuhaitz berdearen itzalean, etzanda geratzea. Monasteriogureneko zaharrek "Zuhatz" Olarizuko zuhaitz zaharrena zela adierazten zuten behin eta berriz eta ni jakinminenez-edo hara joaten nintzen ea egunen batean azaltzen zitzaidan zuhaitzeko iratxoak.

Inoiz ez nuen zorte onik izan, baina a zer-nolako lo kuluxkak egin nituen bere adarpean, itzalean, freskuraz...

Urteak joan urteak etorri, goizean behiekin joaten nintzen eta arratsaldean Palacios zelaiaireen baserriko neska eder batekin. Maria zuen izena. Hura zen polita! Hala ere, Sanjuanetan ez zen nire zitara etorri eta bakar-bakarririk geratu nintzen, "Zuhatz"-en babespean.

–Txiss, txi, txissssss... –entzun nuen gaueko isiltasunean. Ilargi beteak ikaratu egin ninduen. Betidanik errespeto handia izan

– Tira, artikulatu bat irakurtzen ari nauk Elgeako haize-erroten kontrako ibilaldiari buruz. Izena emango dugu ala?

– Noiz da?

– Datorren igandean.

– Oso ondo, baina datorren ostegunean hitz egingo diagu horretaz. Eta orain edan azkar garagardoak, taberna itxi behar ditek eta. Gaueko hamarrak dira. Hebillas-eko hotzak eta afaritarako gogoak "gero arte" xume bana ahoratzen baizik ez digute utzi.

Gogoratzen dut

Gogoratzen dut. Ez dut gogoratzen. Haizea. Itsasoa.

Itsaslabar ondoan gizon bat. Haizea.

Uhin beldurgarriak itsasoa askatzen.

Itsaslabar ondoan gizon bat. Gogoratzen dut.

Ez dut gogoratzen. Besoak gora, zeru griserantz.

Haizea. Uhinak kolpea, arroken kontra jota.

Gizon itsu bat.

Itsasoa.

Zerua, mutua. Grisa. Zerua.

Gogoratzen dut. Uhinak entzuten ditut.

Haizea. Lokien artean. Ez dut gogoratzen.

Itsaslabar ondoan gizon bat, oihuka.

Besoak itxi-irekika.

Gizon itsu bat.

Gogoratzen dut.

Kopeta altxatu zuen. Haize hotzak arima astindu zion.

Ez dut gogoratzen. Itsasoa ikusten dut.

Barrutik igeri egiten dut.

Argi baten aldera. Ez dut ikusten.

Izotzeko isiltasuna entzuten dut.

Eta besarkadak ematen ditut,

besarkadak argiaren aldera.

Eta estropezu egiten dut.

Eta besarkadak ematen ditut.

Eta eguzkipean agertzen naiz.

O!, poza! Eta aurrera egiten dut...

eta ez dut gehiago gogoratzen.

Baina eguzkipean nago.

Testua: Raulen lagunak

Argazkiak: Alvaro Diaz.



diot gauari, ordutik aurrera areagotu egin den errespetoa, alegia.

– Txiss, txi, txissss...

Buruari gogor eraginda ere ez nuen ulertzen soinu misteriosu horren nondik norakoa. Aitzak ez zidan esan leku horretan sugerik bizi zenik, eta soinuak sugearen doinua gogorarazi zidan. Baina suga ez bazen, nor edo zer izango zen ba?

Lasai eta kontu handiz zutitzen hasi eta argiago entzun nuen ahots baxu bat belarrira xuxurlak...

– Bazen garaia, motel, ordu erditxo bat daramazu nire jakaren gainean etzanda... Pozik egongo zara, ezta?

Gure aitaren atzamar lodia bezalako izaki bat izan zen gau berezi horretako hizlaria, nire beldur guztien iturburua; zur eta lur utzi ninduen bere txinatar-itxurako begiez, arrano sudur dotoreaz eta belarri luzeaz... Luze eta zabal mintzatu zen. Ederra izan zen jasan behar izan nuen errieta! Aita ere ez zitzaidan ausartuko horrelako demanda gogorra egiten. Benetako mamu erraldoia zirudien.

Mutu geratu nintzen, eta bost

minututan bera ere bai. Eskuak ahora eraman eta lotsatuta sentitu zen orain iratxo hizlaria... Orain gizakiek jakingo lituzkete iratxoaren sekretuak... Aurtean hamalau urteko umetxo bat zuen eta iratxoak pentsatu zuen hark ere mingaina izango zuela hitz egiteko.

– Nor zara? –isiltasuna urratu zuen Zugazua mutil gazteak.

– Kuxmi naiz, Olarizuko zelaietako iratxoak –hain gogotsu sentitzen zen hitz egiteko, ezen bere bizitza osoa ordu luze batean kontatu baitzion mutil ezezagun horri. Zugazua azkarra zen, eta entzuten ere bazekien, egoe-rak hala eskatzen zuenean, behintzat... Badakit arraro gertatzen den guztiak azalpena baduela. Etorri nirekin eta den-dena kontatuko dizut.

Kuxmik gizakien artean lagun bat egin zuen neurri berean, Zugazua beste hainbeste egin zuen ipotxen munduan. Historia beti ez da gertatzen liburuek kontatzen duten bezala. Zugazuatarrak ditugu auzoko azti, hots, mundu ezezagunekiko bitartekari.

Testua: Raul S. de Buruaga.
Argazkia: Maitane Legarreta

Uda gogoan, Kanpaldi Ibiltariak

Gazteentzako udaleku ibiltariak? Bai, bai. Elkartean aspaldi genuen buruan gazteei zuzendutako ekintzaren bat egitea eta uztailan..., esan eta izan. Oso denbora gutxi izan genuen iragartzeko, baina tira, 6 gazte jator animatu ziren. Ibai, Izaskun, Maider, Marta, Estitxu, David eta ni neu, Édurne, izan gara abentura honen protagonistak. Udalekuak teoriaz uztailaren 5ean hasi behar zuen Araian, baina azkenean bi egun lehenago eman zitzaion hasiera. Azken orduko kontua izan zenez, gure sarrera bertan apur bat asaldaturia izan zela esan daiteke... Hona hemen gure historia:

UZTAILAK 3, LARUNBATA. GASTEIZ

Gaueko 10ak ziren eta gure laguna Marta, temperatura baxuaren ondorioz, etxera igo zen jertseia hartzerara.

Etxe barruan...

- Marta!- bere ama.

Marta, harrituta, momentuz sano zegoelako eta bere aurreko bi kalimotoxoak amak zorionez ez zituelako nabaritutako...

- Deitu dute bihar udalekuetara joan behar duzula esanez eta arratsalderako han egon beharra dagoe-la "La Leze" jaisteko-, esan zion bere amak.

Marta ziztu bizian Izaskun bila jaitsi zen:

- "Agarrate"- esan eta berria eman zion.

David eta Ibairekin topatu ziren, dena kontatu, eta azkenean igandean, biharamunean, joatea erabaki zuten.

Bitartean, Estitxu eta Maider Aranbizkarrako Etsaiak-en kontzer-

tuan galduak, arazoaz ohartu gabe. Marta, Izaskun, David eta Ibai goiz joan ziren ohera, Maiderrek eta Estitxuk, aldiz, parrandan jarraitzen zuten Aranbizkarran.

UZTAILAK 4, IGANDEA. ARAIA

Egun euritsu batean goiz altxatu, motxila hartu eta Araiaara abiatu ginen. Besteek, aldiz, lo segitzen zuten izugarrizko bixamonaz.

Araiaiko ONGI ETORRI! kartela pasatu, di-da batean bainujantzia jarri, eta Bernasek "furgoneta-pateran" rally moduan eraman gintuen La Lece-raino.

Behelainoa zegoen, Marta eta Izaskun bidean galdu ziren eta Aitoor!! -begirale bat- oihukatuz, azkenean taldearekin elkartzea lortu zuten. Neopreno trajeak janztea ere ez zen lan erraza izan. Azkenik espeleologia egiten hasi ginen. Mila bider "rapelatu", mila kolpe jaso, mila zauri egin... Abenturak bost ordu t'erdi inguru



Idiazabalgo bidean. Galduta!!

iraun zuen -gauerdia aldera ateratzen ginen kobatik-.

Araiaara itzuli ginen, bustiak, neketu eta zikin. Gogor hasi ziren kanpamenduak !

UZTAILAK 5, ASTELEHENA.

ARAIA-ARANTZAZU

Goiz altxatu eta "furgoneta-patera" hartu genuen hemeretzik Zuma-nondiko zundaketetarraino helduz. Ondoren Lierrez fidatu eta menditik zehar Urbiako zelaietara iritsi ginen. Talde txiki bat Aitzgorriko tontorreraino igo zen, baina gehien-goia atsedenditxoa hartzen geratu ginen Urbian. Gero, Arantzazura.



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA

Arantzazura. Apaiz jator batek aterpea zabaldu zigun. Bitartean, falta ginen beste hirurak Arrasatera zihoan autobus batean gindoazen. "Para ser conductor de 1ª, acelera...". Zelako gidaria! Nongo jaientan emango ote zioten baimena? Oñatira, beste bus batean. Oñatin, gure bila inor ez zetorrela ikusita, taxiz joan ginen Arantzazuraino. Azkenean Gasteizko guztiak elkarrekin! Ospatzeko, afari ederra: espagetiak barregarri eta esnegainaz.

Afalostean ibaia entzutera jaitsi ginen, baino bakarrik ur-tutuak adi zitezkeen. Euskal mitologiak berba egin, eta iluntasunari beldurra kentzeko... beldurrezko jokoa, noski. Pasabide luze eta ilun batetik sorginak eta bestelako bizidunak topatu genituen. Ekaitzaren ondoren, barea; lo egitera!.

UZTAILAK 6, ASTEARTEA.

ARANTZAZU

Eguna Oñatin eman genuen, jolasen eta jolasten, Aitorri hankak -eta bestelakoak- margotzen...

UZTAILAK 7, ASTEAZKENA.

OÑATI-ZERAIN

Oihu batzuek esnatu gintuzten, begiak hala-hola ireki eta: apaiz eta lekaime bat bedekintzen; ala!, buelta erdia eta sakuaz burua estaltzera. Oier eta Eburne ziren. Beste "pedrada" bat!

Hurrengo helmuga: Zerain. Bokata eta kantinploraz, motxila sorbaldara. Ibilbidea hasi eta aldapa guztiak gora. Etoparik luzeena genuen hau baina ikusitako paisaia ederrek ibilbidea leuntzen zuten.

Zerainera iritsi -hau bai herri polita!- eta herriko frontoira abiatu ginen. Ur hotzarekin dutxatu behar



Baina... Zertan ari dira? ...Sexualitate tailerra.

izan genuen, baina 8 ordu ibiliz geroztik..., gustura!

UZTAILAK 8, OSTEGUNA.

ZERAIN-IDIAZABAL-ORDIZIA

Zeraingo frontoian eroso lo egin ondoren, gosalduta, herriko museoa eta kartzela zaharra ikusi, bokatak egin eta eguerdi aldera Ordiziako bidea hartu genuen, Aitor -begiralea- buru. Ibiliz Idiazabalera iritsi ginen. Bertan atun bokata jan, lo kuluska egin, Lazkaotik pasa eta, azkenean, Ordizia. Ikastolan jarri, eta gaur herriko buelta bat eman, tabernarien pozerako.

UZTAILAK 9, OSTIRALA.

ORDIZIA

Azkenean ere!, egun lasaia..., edo hori uste genuen guk behintzat. Eguna Ordizian emango genuen. Zaldibiara joan ginen igeri egitera, bertan putzu bikaina baitzegoen. Baina arazo bakar bat zegoen: eguerdiko ordu bata zela eta eguzkia bere punturik altuenean kokatua zegoela guri egundoko lipotimia sortarazteko prest. Baina bide erdia ibilia genuenean, Bernas honezkero famatua den "furgoneta-pateran" agertu, eta korrika batean hogeitak bat pertsona bata bestearen gainean bertan sartu, eta "kamika-

zeen" antzera putzuetaraino eramantzen.

Bertan eguna pasata eta uretara hainbat salto egin ostean Ordiziara bueltatu ginen, ikastolan Bernasen furgoneta grafitiz bete -Euskal Herria Tropikal- gurelarik. Ostirala zenez gero gaurerako plana prestatzeko txanda zen. Hiru ziren aukera posibleak: alde batetik, gaur udal-igerilekuetara "de estrangis" sartzea; bestetik, herrian zehar poteoa; eta hirugarrena, Gazte-txean ospatzen zen festa kubatarra joatea. Guztiak egin ziren azkenik. Odiagak bere alkandora kubatarra jantzi, besoa bezain puru luzea hartu eta hain sonatua zen festara abiatu ginen. Hara heldu eta, dirudienek, festa horren berri izan zuten bakarrak gu izan ginen Ordizia osoan. Azkenean Ordizian tabernaz taberna joan ginen giro aparta sortu gurela geure inguruan. Nahiko bero ginenean udal-igerilekuetan sartu, bainu azkar bat hartu eta korrika batean guztiok kanpora atera ginen. Gorputza fresko eta prest hurrengo eguneko etapa gogorrerako.

UZTAILAK 10, LARUNBATA.

ORDIZIA-BIDANIA.

Bezperako jaiaren ondoren, goiz (!) esnatu, gosalduta eta gure bidetara ekin genion. Hasiera maldatsua izan zen, baita neketsua ere, baina Murumendiko puntara iristea erdietsi genuen eta handik gure herriaren edertasuna ikusi ahal izan zen. Bertan bazkaldu eta... nor eta gasteiztar batzuk -aupa Raul eta Igor!-. Bazkaldu eta jaisten hasi ginen, eta 3 ordu ibili ostean... galduta geundela esaten digute. Atzera jo eta ordubete geroago Gipuzkoa "profundan" geunden, Bidanian, herri tiki eta txukun batean.)



Hernanitik Pagoetara. Polita, eh?

UZTAILAK 11, IGANDEA.
BIDANIA-PAGOETA

Bidanian bazkaldu eta Pagoetarako bidea hartu genuen. Errioraino nahiko erraz heldu ginen. Bertako baserri batean, hiru artzainekin batera, batzuek hamaiketako egin zuten.

Pagoetara iritsi baino lehen, arazo txiki bat suertatu zitzaigun: Pateraren giltzak galdu zirela. Bila zebiltzan bitartean, Pagoetako behealdean itxaron genien. Gero taldeka jana banatu eta aldapa gora abiatu ginen abiadura bizian. Euria hasi zuen. Denok babeslekuan bildu ginen...

UZTAILAK 12, ASTELEHENA.
PAGOETA-ORIO.

Pagoetako babeslekuan, sardina-toak bezala, edonola egin genuen



Arantzazun lotan.

lo. Salbuespena, Itsaso -azpiegitu-rako begirale bat- azkena iritsi zela eta Unai eta Txomin ia kanporatuz eroso-eroso egin zuela lo. Gasteizko bik, begiraleei adarra zertxobait jo genien -Edurne, Oier eta Eneritzi (zelako jenio txarra!)-, hala ere ez ziren esnatu. Zer egin



"Los pintores de Vitoria..."

ote zuten ba goizeko bostak arte? Gosalduta eta dena batu ondoren -zelako txerrikorta!- Oriora abiatu ginen. Aian, egonaldi txiki bat. Bidaia amaiezina iruditu zitzaigun...

Orion Zaragueta eskola okupatu genuten. Bedela ezin jatorragoa zen. Sinezgaitza!, ur beroa genuen dutxatzeko. Gazez Arima Beltza Blues taldearen kontzertuaz gozatu ginen.



Ze polita den Euskal Herria.

UZTAILAK 13-14. ORIO

Hurrengo bi egunak Orion eman genituen. Kontzertuak, tailerrak -sexualitatea eta makilajea, latex eta abarrekin-, piraguak, denbora libre, bertso afaria... Azkenengo gauean parranda egin genuen herrian irekita zegoen taberna bakarrean rap talde bat entzuteko parada izanik. Hau bukatu da. Bihar Gasteiza...

... Bertan egindako lagun guztiak agurtu nahi genituzke. Afaria noizko?



Ibai, Izaskun, Maider, Marta, Estitxu, David eta Edurne.

INFORMAZIOA:
GEU ELKARTEA (945 22 21 53)

ITURRIETA

Sagardotegia



**UDAZKENEKO
PLANIK ONENA!**

Arraga auzoa. Tfnoa.: 945 44 53 85 • ARAMAIO

**Ka
La
ma
TABERNA**

Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria,5

Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

"AISE"

eneko@hotmail.com

1999ko uztailak 31, ISTANBUL, gaueko 9:20an

Kaixo lagunok!!!

Napoles-en nengoenean lagun fiandi bat egin nuen, eta zera esan zidan: - "Istanbulen zaudenean deitu nire lagunari, Cemal-en etxean zurean bezala egongo zara". Orain Istanbul-en nago, Cemal-i deitu diot eta bere emaztearekin geratu naiz euren etxera autobusez joateko. Txirringa bulego batean utzi dugu. Autobusean Aise-ri [Aise da bere izena] ea Istanbul bertakoa den galdetzen diot. Ezetz dio, baina ez dit ezer gefiago argitzen. Momentu horretan buruari bueltaka nabil...: "Zeri buruz idatziko diet Geu Gasteizko lagunei?, hainbeste gauza gertatu direnez gero..."



Istanbulera etortzea zen nire asmoa hasieratik, baina ez naiz zuzen etorri. Ez dut jangoikoarengan sinisten, nire burua ateotzat dut eta ez nuke inoiz harri, egur, burdin, ikur bat edo dena delakoa ikusteko bidaiarik egingo, baina bidaiia honetan oso leku berezia ikusi-sentitu nahi nuen eta Esloveniatik zuzen etorri beharrean, iparralderantz abiatu nintzen. Hungaria, Austria, Eslovakia eta Txekia zeharkatuz leku berezi honetara heldu nintzen: Oswiecin, Poloniako herri bat. Horrela, polonieraz, izenak ez dizue asko adieraziko, baina alemanierazkoak garbi erakusten digu gizakiaren krudelkeria noraino hel daitekeen: Auswitch. Zertarako joan holako leku desatseginera? Ez dakit, ez nago ziur, beharbada han gertatu zena "ulertzen" (zerbait ulertzerik badago) saiatzeko. Orain badakit ezinezkoa dela ulertzea, baina behinik behin, bertako herritarrengana hurbiltzen zara eta hori polita da. Orain hobeto sentitzen naiz...

Poloniatik atera eta atzera Hungaria eta Eslovakiatik pasatu nintzen. Ondoren Errumaniara, beldur pixkatxo batekin, Hungaria eta Eslovakian jendeak abisatu baitzidan Errumaniar kontuz ibiltzeko, baina hango zenbait lagun ezagutu ondoren lasaitu nintzen. Egia da, oso herri pobrea da eta jendea behartsua, baina baita oso jatorra ere. Kanpoko pertsona gutxi ezagutu dutenez, denetik galdetzen dizute jakinminez. Behin herri txiki batera heldu nintzen, Borla-ra. Euria ari zuen eta iluntzen ari zenez kanpatzeko leku bat behar nuen. Etxe baten aurrean leku egokia ikusi nuen, atea jo eta gizon bat atera zen, erdi keinuz erdi gaztelaniaz [errumaniara ere latinetik dator] baimena eskatu nion han kanpatzeko. Hasieran mesfidantzaz begiratzen zidan, baina azkenean atea ireki egin zuen. Zelaian leku apropos baten bila nengoela, berarekin joateko esan eta korta erakutsi zidan.

- Hemen babestuago egongo zara.

- Eskerrik asko! [Multsu mesc!].

Kanpin-denda muntatzen hasi eta gizona laguntzera animatu zen. Muntaketa bukatutakoan dendari begiratzen zion arreta handiz, berarentzat dena berria zen-eta:

- Bai, polita da, baina hemen, nola demontre egin dezakezu lo?, galdetu zidan.

- Kontxo, egia da!, pentsatu nuen, muntatzeko ez da beharrezkoa dendako atea irekitzea eta gizon honek bere bizitza osoan ez du kanpin-denda bat ikusi, berarentzat burbuila bat baino ez da...

Atea ireki nuen eta barruko espazioa erakutsi nion.

- Ah!, hots egin zuen, buruaz baietz esanez.

Gero, kortaren ate ondoan geratu ginen biok euriari begira eta elkarri norberaren bizitzaren inguruan galdetzen. Asko ikasi genuen bata bestearengandik. Afaltzeko arraultzak eta esnea ekarri zizkidan.

Goizean, kanpadenda ondoan argazki bat egin nuen; biok ateratzen gara betiko lagunak izango baikinan. Benetan uste dudala aspaldiko lagunak garela... Gauzak bildu nituen. Diru apur bat eskaini nion hainbeste laguntzeagatik [gure mentalitatea, dena diruagatik egin ohi da], baina onartu ez, argazkia bidaltzeko baizik ez zidalarik eskatu. Noski!. Pena handiz bizikletara igo eta agur esan nion.

Batzuetan bizikleta gogorra da, aitzitik oso baliagarria da jendearekin hartu-emanak sortzeko.

Aise-k hitz egiten dit eta Turkiara "itzultzen" naiz, Istanbulerako autobusera...:

- And you?, were are you from?

- I am from Basque Country, do you know?


- Yes.

Une horretan bere ezpainak nire belarrira irribarrez gerturatu eta xuxurlatuz zera esan zidan:


- I am kurdish!

Eneko Etxebarrieta

CASTIZ
Geu




-



ALVARO eta ikasurte berria

Goiz ésnatu, motxila liburuz beteta bizkarrera eraman eta listo: "Ai ene!, hemen daukagu berriro ikasturte berri bat". Hain urrun ikusten genuen eguna heldu eta Alvarok, neska-mutil askok bezala, umore txarrez hartu zuen bere lehen eguna ikastolan.

Nahiz eta lehenengo egun horretan gogo eskasa izan, lagunekin berriro elkartzea gustura hartzen du, udan gertatutako abenturak eta ondikoak elkarri kontatzen baitizkiote eta, horrela, denen artean oporrak bukatzearen ezbeharrak partekatzen dute pena gutxituz. Orain lehenengo balorazioak egiten ari da irakasle, irakasgai, liburu eta material berriei buruz, eta badago irakasle bat bere gustukoa ez dena... Baina nork ez du horrelakorik bizi izan?



Zer dira zuretzat...



ALAN, 11 URTE

Andereño eta maisuek bronka gehiegi botatzen diete ikasleei eta batzuetan inolako arrazoirik gabe. Hobeto portatu beharko lukete gurekin.



ANDONI, 7 URTE

Niretzat andereño eta maisuak oso onak dira eta nahiko ondo portatzen dira umeekin. Beraiekin oraindik ez dut arazorik izan.



BORJA, 11 URTE

Andereño eta maisuen artean denetarik dago: onak, txarrak eta beste batzuek alde onak eta txarrak dituzte. Batzuk bereziak dira oihulari hutsak direlako.

Sara Yañez Ercoreca



GASTEIZ, HAURREN IKUSPEGITIK

ANTZERKI JAIALDIA

Urriaren hasierarekin batera urtero heltzen zaigu antzerki jaialdi berri bat Gasteiza. Haurrentzako antzezlanen zerrenda oparoa da: Pailazoak, abenturak, txotxongiloak... Euskarazko hiru obra izango dira urrian:

Hasteko, Urriaren 9an Ipar-Arriaga antzokian, "Mari Sorgin", Taupadak eskainia. Ondoren, Urriaren 10ean, Trokolo antzerki taldeak "Tantaz tanta" ikuskizuna aurkeztuko digu, non protagonisten eskutik uraren ziklo naturala ezagutzeko parada izango dugun. Eta bukatzeko, "Kaioa eta katua" 17an, Txamuskina antzerki taldearen eskutik, xamurtasunez eta umorez beteriko istorioa. Pertsonaia nagusia kaleko katu bat da eta haren gora-beherez gozatu ahal izango gara.

Oro har, eskaera erakargarria dirudi. Beraz, egin zuen kiniela eta gehien gustatzen zaizuenari heldu egun batez behintzat antzerkiaren trenera igotzeko.

Bagareko Gau Eskoletan

Euskal Pentsamendua hizpide

Euskal pentsamendua lantzeko, eta euskaldunok ingurua ulertzeko nahiz bizitzeko moduan sakontzeko xedearekin sortu dira Gasteizen Gau Eskolak. Bagarek eta Iturri Kulturgintzak antolatuta, ekimen hau bi fasetan burutzen ari da: lehenengoa, apirila eta maiatza aldean egin zen, eta bigarrena, berriz, urria eta Abendua bitartean izango da. Orotara 14 klase eskainiko dira, eta horiek ematearen ardura Euskal Herriko goi-mailako hainbat irakaslerena da.

Gau Eskolak Iparraldean egin ziren ezagunak aurreneko aldiz, izan ere, euskalduntze-alfabetatzearen jatorriko ibilbidea izan ziren. Oraingo honetan, ordea, Gau Eskolen izaera zertxobait aldatu da, eta egitasmoa ere bestelakoa da. Garai batean Iparraldean egindako Gau Eskolen helburu nagusia euskara bera lantzea eta jorratzea zen, alegia, zekiteni alfabetatze bidean laguntzea eta ez zekiteni euskaldunberriaren ikas-prozesuan abiaraztea. Baina orain euskarak beste egoera bat bizi du, eta hortaz, Gasteizen antolatutako "Euskal Pentsamenduaren Gau Eskola" hauen helburu nagusia, euskal kulturaz jakitea eta gure hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko sinbiosia garatzeko egitasmoa abian jartzea da.

Ikastaro hauek, izenburuak berak dioen moduan, euskal pentsamendua lantzea dute helburu. Horretarako hamalau gai jorratuko dira, horietako zazpi jada eman direnak, eta bakoitzari egun bat eskainiko zaio.

Horrela, gai bakoitzaren inguru-

ko ildo nagusiak azaldu eta eztabaidatzeko parada izaten da.

Bagarek eta Iturri Kulturgintza Zerbitzuak antolatuta, eta Josemi Zumalabe Fundazioaren dirulaguntzaz, apirilean eta maiatzean Gau Eskolen 7 klase eman ziren, guztiak Bagareko lokaletan, eta irakasleak Euskal Herriko onenetarikoak izan zirela, eta direla, esan daiteke;

PAULO IZTUETA:

Intelligentsia . Kimatuaren Orbelak

Paulo Iztueta irakasleak, "Intelligentsia kimatuaren orbelak" izeneko klasea eskaini zuen Gau Eskolako lehen aldian. Hasiera batean, Unibertsitatean Pedagogiako saillean, euskal gizarteaz eta euskal kulturaz klaseak emateko testu-liburu gisa erabiltzeko prestatu zuen saiakera izan zen hori. Baina sakonean, beste arrazoi batzuk ere bazeuden, hauen artean, euskal kulturaren inguruko zenbait kontzeptu argitzea eta, bereziki, euskal kulturaren soziologia egitea. Horrela, euskaltzale eta abertzaleen munduari orokorrean, nazionalismo espainoletik egiten zaion esentzialismoaren salakuntzari erantzun nahi izan dio Paulok.

Liburuan planteatzen diren galdera nagusiak, eta eskolan eztabaidatu zirenak, hauetxek ziren: batetik, ea euskararik gabeko nazio-proiektu baten aldeko borrorak zentzurik ba ote duen, eta bestetik, baldin onartzen bada euskal nortasuna hizkuntzak egiten duela, euskal lurraldearen euskalduntzea estatu-botererik gabe lor ote daitekeen ala ez. Lan hau aitzindari izan delakoan dago Paulo Iztueta, izan ere, idatzizko literaturaz aparte, ahozkoa eta historiaurrekoa ere biltzen dira bertan.

adibidez: Paulo Iztueta, Josu Amezaga edo Xabier Apaulaza. Irakasle bakoitzak gai bat jorratu zuen, euskal pentsamenduarekin lotuak guztiak, besteak beste eta hurrenez hurren, "Euskal intelligentsia", "Euskal kultura eta kultura popularrak" eta "Gizarteratzearen fenomeno".

Lehenengo aldi honek sekulako arrakasta lortu zuen. Izan ere, eskolak 15 pertsonarentzat egiteko asmoa zuten antolatzaileek, baina azkenean hogeitalauk eman zuten izena. Beraz, Gau Eskolen bigarren zatia egitea erabaki zuten eta beste zazpi eskola eskainiko dira urriaren 20tik abenduaren 1a arte. Gainera, Gau Eskolen lehen fasean parte hartu zuten ikasle gehienek bigarren honetan ere jarraituko dute.

IKASTAROEN METODOLOGIA

Gau Eskolak euskaraz ikasten ari direnei, zein ez, zuzenduta daude. Horren adibide dira eskolen lehen fasean parte hartu zuten ikasleak: batzuk uni-bertsitarioak ziren, beste batzuk langile hutsak, eta guztien artean euskaldunberriak zein euskaldunzaharrak zeu-

**Jesus Argote,
Bagareko koordi-
natzailea, pozik
agertzen da ikastaro-
en arrakastarekin.**

netarako euskaldun berriak animatu nahi ditugu. Ez diezaietela beldurrik izan gaiei, nahikoa ulerterrazak baitira".

Ikastaroen metodologiaz esan behar da klaseak ez direla ohiko eran ematen, mintegi moduan baizik. Hots, asmo nagusia zera da, adituen gidaritzapean (irakasleen gidaritzapean, alegia) ikasleen partehartzea bultzatzea. Klase guztiak elkarrikteta moduan antolatzen dira, eta behin materiala aurretik entregatu eta prestatu ostean, irakasle eta ikasleen artean eztabaidatzen dira.



Alizia Stürtze

Horretarako, hasieran ikasleei mintegiaren material guztia, eta baita gaia sakontzeko beharrezkoa dena ere ematen zaie.

Aurrenekoa -mintegia prestatzeko materiala- gaiaren eske- ma bat da, bertan eskolaren ildo nagusiak azaltzen direlarik. Eta gaiak sakontzeko materialak, ordea, gaia zabalago joratzeko balio du, interesa edukiz gero, nondik nora jo argitu ahal izateko.

**"Nazio arazoa
eta gizarte klase-
ak" izeneko eskola
emango du Alizia
Stürtzek azaroan.**

den. Jesus Argote, Eskolen antolatzailerako batek dioenez, "oso esperientzia polita izan da orain artekoa eta, beraz, bigarren txanda ho-

MIKO
izozkiak

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

PLATÓ
TABERNA

Zaldiaran Plaza, 10 - Tfno.: 945 22 65 64



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

IRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
TABERNA
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ



Landutako gaien artean honako hauek aurki daitezke: "Euskal intelligentzia", "Euskal kultura eta kultura popularrak" eta "Gizarteratzearen fenomeno", besteak beste.



Jesus Argote. Bagareko Zuzpertzaila

Gasteizko Gau Eskolak aintzindariak izan dira Euskal Herrian, eta gainera jendearen arreta piztu dute Euskal Herriko beste herri batzuetan.

Irakasleak Euskal Herriko onenatarikoak direla esan daiteke.

Ikastaro hauek, izenburuak berak dioen moduan, euskal pentsamendua lantzen dute helburu.

Udaberrian eman ziren klaseen arrakasta ikusita, Jesus Argote pozik agertzen da, bere aburuz jendea "oso gustura" gelditu baita. "Gai guztietan hitz egin zen eta jendeak aukera izan zuen interesatzen zaizkion gaiez euskaraz mintzatzeko".

Gasteizko Gau Eskolak aintzindariak izan dira Euskal Herrian, eta gainera jendearen arreta piztu dute Euskal Herriko beste herri batzuetan. Eta hortaz, baliteke, ekimen bera beste hainbat herritan martxan jartzea. Izan ere, antolatzaileek Gau Eskolak hamar-hamabost herritan egiteko asmoa dute. Eta Gau Eskola horiek gorpuztuko diren leku fisikoak, berriz, herriek eskaini ditzaketen baliabideen

arabera hautatuko direla adierazi dute antolatzaileek; kultur etxeak, ikastolak, euskaltegiak, udaletxeak, txokoak eta abar.

ORDUTEGIA ETA PREZIOAK

Ordu térdi-bi ordutako iraupena izango dute Gau Eskoletako klaseek, eta guztiak arratsaldeko 8etan hasiko dira. Prezioari dagokionez "nahiko merkea" dela diosku Jesusek. Bagareko bazkideek 8000 pezetan ordaindu behar dute, eta bazkide ez direnek, berriz, zertxobait gehiago, 9600 pta. Horiek izan dira lehen faseko klaseen prezioak, eta orain salneurri berberak mantentzen saiatuko direla adierazi digu Jesusek.

Eskolak Bagareko lokaletan eman ziren pasa den udaberrian, baina orain, baliteke lekuz aldatzea. Halere, tokia zehazteke dago oraindik.

KLASE BERRIAK

Urriaren 20an izango da bigarren fase honetako lehen klasea, eta abenduaren 1ean azkenengoa. Eta hauek, gaiak: urriaren 20an, Joseba Tobar "Euskal Ekonomia"z mintzatzeko zaigu, eta Koldo Gorostiagaren

MERKURIO-KADMIANO
%0a

**CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK**

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA

CEGASA
INTERNATIONAL
TOP ENERGY
ALKALINE

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

XIXILU
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

HEGOALDE
Euskaltegia

Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

eskutik, "Euskal Sindikalismoa" hizpide izango da, urriaren 27an.

Azaroan, aldiz, lau klase eskainiko dira: azaroaren 3an, Idoia Fernandezek "Euskal Emakumea" izeneko gaia jorratuko du. 10ean izango den irakasle eta gaia zehazteke dago oraindik. Azaroaren 17an, Mario Zubiagak azalduta, "Pentsamendu Politikoa" deritzon ikasgaia mintzagai izango dugu. Eta azaroko klaseekin bukatzeko "Nazio arazoa eta gizarte klaseak" izeneko eskola emango du Alizia Stürtzek.

Eta Gau Eskolei amaiera emateko, "Euskal zibilizazioa" izeneko klasea eskainiko da. Irakasleari dagokionez zehaztu gabe dago nor izango den, Alfontso Martinez Lizarduikoa ala Josu Naberan.

Dagoeneko matrikula zabalik da eta izena eman nahi izanez gero oso erraza duzue: Kutxileria (Aiztogile) kalean dagoen Bagare Euskaltokitik pasa, edota bestela 945-25 10 84 telefonora deitu.

 Edurne Begiristain

JOSEBA TOBAR, EHUko Irakaslea



Bigarren fase hau irekiko duen irakaslea Joseba Tobar da. EHUko irakasle honek "Euskal ekonomia" gaia jorratuko du urriaren 20an. Aski ondo menperatzen duen ikasgaia da hau, izan ere berak "Zientziaren historia" irakasten du

Gasteizko Geografia eta Historia fakultatean, eta halaber, Dokotorego ikastaroan Ekonomia klaseak ematen ditu. Gau Eskolen inguruan galdetu diogu Josebari.

• Zer iritzi duzu "Euskal Pentsamenduaren Gau Eskolen" inguruan? Ideia ona iruditzen al zaizu horrelako ekimen bat antolatzea?

Primerako ideia dela deritzot. Lehenengo Gau Eskolak egin zirenean, xedea alfabetazea zen, alegia, euskaldun berriak euskaraz ondo jakiteko eta zaharrak alfabetatzeko. Baina hau beste kontu bat da, orain edukiak baitira garrantzitsuenak, eta edozein gairen inguruan euskaraz eztabaidatu ahal izatea aparte-koa iruditzen zait.

• EHUko beste sei irakaslek ere klaseak emango dituzte, bakoitzak aditua den gaia jorratuz. Zure kasuan, zuk zeuk aukeratu zenuen gaia ala hori ematea proposatu zizuten?

Niri eskatu zidaten Euskal ekonomiari buruzko mintzalditxo bat edo antzeko zerbait ematea. Eta nik horren inguruko lantxo bat prestatu dut, hogei orrialdekoa gutxi gora-behera. Nire klasea esku artean dauzkadan zenbait ikerketaren inguruan emango dut, zehazki, Euskal Herria txikia izaki, zer-nolako etorkizuna izan dezakeen mundu mailan gaiaren inguruan.

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA

Aiztogile (KUTXI) kalean

Argazki - Estudio

Erramun

Heraclio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tnoa: 26 19 91
01004

DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- Fotokopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean
- Arte ederretarako..
- behar duzun
- guztia

PAPERTEGI TEKNIKO

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883

GASTEIZ

"Plan bikaina"

Gobernuak kartzelaz aldatuko dituen 105 presoen zerrendan sei arabar daude; bi Euskal Herrira etorriko dira, Langraitzera. Senideak-ek Gobernuak hartutako erabakiaz oso balorazio negatiboa egin du, hurbilketa izan beharrean kartzelatik kartzelarako mugimenduak baino ez direlako izan. Mugimenduek preso eta ingurukoentzat izango dituzten eraginei buruz hitz egiten, Barne Ministerioarena "plan bikaina da. Gutaz zuten informazio guztia erabili dute" azaldu zuten Gasteizko Senideak-eko ordezkariak. Erabili bai, baina ez onerako. Esan bezala, Madrilgo Gobernuaren aginduz sei preso arabar aldatuko dituzte kartzelaz egunotan. Xabier Izaga Caceresetik Asturiasera, Villabonako kartzelara, Josu Diez de Heredia Malagatik Jaenera, Julen Fernandez Bernales Salamancatik, Topaseko espetxetik, Valladolidera eta Benjamin Ramos Madriletik Kataluniara. Euskal Herrira ekarri dituztenak Jose Manuel Gimon eta Garbiñe Ibargutxi dira, Segovia eta Villabonatik Langraitzera.

KALEAN BEHAR ZUTEN IZAN

Kartzelaz aldatu dituztenetako bik kalean egon behar zuten aspaldian: Xabier Izagak eta Jose Manuel Gimonek hamazortzi urte daramatzate espetxeraturik, eta Izagak 96an bete zituen zigorraren hiru laurdenak eta Gimonek iaz. Legez kanpoan egon behar luketen beste bi preso arabar ez dituzte mugituko, ezta momentuz kaleratuko ere:

Ricardo Izagak joan den urtean bete zituen hiru laurdenak eta Saturnino Lopez Domaicak 96an.

Senideak-ek, presoen familiak eta lagunak biltzen dituen elkarteak, adierazi duenez, Gobernuak iragarritako mugimenduak bi alde ditu; batetik, balorazio politikoa eta, bestetik, preso eta beren gertukoengan duen eragina. Balorazio politikoari dagokionez, Senideak-ek ez du zalantzarik: "Ez dago hurbilketarik, kartzelatik kartzelarako mugimendu hutsak izan dira. Mugitutako guztietatik 26 baino ez dituzte Euskal Herriratu, eta horietako gehienek kalean izan behar zuten".



Iritziak

Jaime Mayor Oreja Barne ministroak planaren berri eman zuenean bi jarrera nagusitu ziren alderdi politikoen artean: Gobernuari babesa eman ziotenak, eta neurria berandu etortzeaz gain, eskasa, oso eskasa, dela azpimarratu zutenak.

Lehenengo jarrera PP eta PSOErena izan da. Carlos Iturgaiz EAEko PPko buruak berau txalotu eta Gobernuak bakea nahi duela erakusten duen erabakia dela adierazi zuen. PSE-EEn ere ondo iruditu zitzaizkion mugimenduak, baina kartzela-politika beraiekin hitzartzea eskatu zion Gobernuari.

IU-EBk neurria Madrilgo Gobernuaren borondate onaren adierazle izatea espero zuela esan, eta lehen urratsa besterik ez izateko itxaropena agertu zuen.

Alderdi abertzaleak askoz ere kritikoago azaldu ziren. EAJko Joseba Egibarrek Mayor Orejak Lizarragaraziren urteurreneko ilusioa saboteatu nahi izan duela adierazi zuen; Arnaldo Otegi, EHko bozeramalea, euskaldunek presoak Euskal Herrian egon behar dutela argi eta garbi esan dutela gogoratu eta azaldutako borondateari Gobernuak barre egin diola esan zuen; eta, azkenik, EAKo Begoña Lasagabasterrek neurria oso eskasa zela azaldu eta gehienez legearen %15 baino ez duela betetzen salatu zuen.

Presoen Kolektiboak ere bere iritzia plazaratu zuen, Gobernuak jostailu moduan erabiltzen dituela salatzeke. Espetxetik irteteko baldintzak beteta dituztenak, batetik, eta gaixoak, bestetik, kaleratzeko eskatzeaz gain, taldeko bozeramaleek kartzela batean biltzea elkarriketari ekiteko kondizioa dela gogoratu zioten Gobernuari.



ESKUBIDEAK

Senideak-en ez dute sinetsi Gobernuak duela urtebete zabaldutako prozesuan sakontzerik nahi duenik: "Mugimendu hauek nola aurkeztu dituzten ikustea besterik ez dago: su-etenak urtea bete du eta tori oparitxoa!, presoak bake prozesuaren oinarri moduan hartu nahian, baina presoek eskubideak dituzte egoera politikoa dena dela ere".

Gobernuak, dituen baliabideekin aurrerapauso bat eman nahi izanez gero, asko egin dezakeela gogorazi dute Senideak-en: "3/4ak beterik dituztenak eta gaixoak kaleratu eta jende piloari gauzak erraztu, anaia-arrebak eta bikoteak kartzela berean bilduz, adibidez".

Kaleko jendeak Gobernuaren aginduaren inguruan zer iritzi duen jakiteak kezka sortzen du Senideak-en, "guretzat oso kaltegarria izan delako, adarjotze hutsa". Izan ere, mugimenduek arazo larria sortu diete astero-astero preso dagoen senidea edo laguna bisitatzera joateko kilometro asko egin ohi duten guztiei. "Barne Ministerioak oso ondo ezagutzen gaitu eta zituen datu guz-

tiak erabili ditu aldaketa hauek prestatzeko".

KILOMETROAK SOILIK EZ

Dispersioa kilometroetan bainik ezin dela neurtu garbi utzi nahi izan dute, "hori baino gehiago da, kartzela barruko bizimodua eta giza eskubideekin zerikusi handia du". Preso bat kartzela batetik bestera eramaten dutenean zerotik hasi behar da, 1. graduan, isolamenduan, eta askotan eskubideak -gehienetan borrokaren bidez lortutakoak- hauts bilakatzen dira: hartu-emanak, jarduerak, patiora irteteko eskubidea,...

Bisitan joaten direnak ere ohi-turak aldatu beharrean daude: "Xabier Izagaren kasuan, esaterako, Caceresen zegoenean autobusean jaisten ziren neska-laguna eta alaba. Orain? Beraien kabuz Asturiasera. Eta honekin jarraiki, hemendik aurrera honen ondorioz zenbat autobus mantendu ahal izango dira?, Extremadurakoa esate baterako...". Eta holako beste hamaika kasu aipatu ditu Senideak-eko Milak, erabakia pertsona zehatzengan kaltegarria izango den adibide ugari.



Leire Lpz. de Aberasturi

"Kartzelaz aldatu dituztenetako arabar preso bik kalean egon behar zuten aspaldian"

"Legez kanpoan egon behar luketen beste bi preso arabar ez dituzte mugituko, ezta momentuz kaleratuko ere"

"Ez dago hurbilketarik, kartzelatik kartzelarako mugimendu hutsak izan dira"

"Mugitutako guztietatik 26 baino ez dituzte Euskal Herriratu, eta horietako gehienek kalean izan behar zuten"

"Su-etenak urtea bete du eta tori oparitxoa!"

"Barne Ministerioak oso ondo ezagutzen gaitu eta zituen datu guztiak erabili ditu aldaketa hauek prestatzeko"

"Guretzat oso kaltegarria izan da, adarjotze hutsa"



“Gasteizko aro berri baterako ikurra”, “berpizkunde industrialaren hasiera”, “langabeziari aurre egiteko ekimena”, “aberastasun iturria”,... Horrela aurkeztu zuten erakundeek Daewoo, eta lantegia eraikitzeko lurra eta milioiak eman zizkieten enpresariei sortu ez dituzten 700 lanposturen aginduaren truke.

Bi urte eskas geroago aspalditxoan Gasteizko lantegi handi batek egindako grebarik luzeena burutu dute Daewoo-ko langileek. Ia bi urtez erabateko behin- behinekotasunean, praktika kontratuekin eta sektorean ordaintzen diren soldata baxuenak jasan ondoren lan egoera duina exijitu diote Zuzendaritzari. Sektoreko beharginen ordainsarira iristeko falta duten % 36a hiru urtetan lortzea eskatu eta enpresak %6 eskaini zien, azkenean langileen ordezkariekin hitz egitera eseri zirenean. GEU GASTEIZ inprentara bidaltzeko orduan txantxa ote zen argitzeko lanean ari zen enpresa komitea.

borroka sindikal gaztea

Bi urteko pazientzia

1997ko uda amaieran zabaldu zituen ateak Jundizen kokatutako enpresa korearrak, eta Gabonetan saldutako lehen hozkailuak egin zituztenek 60.000 pezeta kobratzen zuten hilero. Urtebete geroago 80.000 eta egun 110.000 pezeta, betiere zortzi orduko lanagatik.

Egoerari aurre egin eta enpresaren jarrera mugiezina aurkitzean, grebara irteteko erabakia hartu zuten sindikatuen babes osoa aurkitu dutelarik. Sindikatuak sekulan ez dute begi onez ikusi Daewoo-ren proiektua eta bertako esperientziaren eredia ez zabaltearen alde egingo dutela adierazi dute, erakundeen diruaz baliatuta gazteentzako lan ezegonkorrak sortzen dituzten multinazionalak erakartzea ez baita sindikatuen ametsa.

Sindikatu nagusien babesak eta beraien arteko batasunak indarturik -160 langileren plantilatik bulegoetan lan egiten duten 14k baizik ez diote grebari ezetz esan- borroka azkenearaino eramateko erabakia hartu dute langileek, “honaino helduta ezin gaitzezke lehenera itzuli” adierazi du Alfonso Zarco, enpresa batzordeko kideak.

“Honaino helduta ezin gaitzezke lehenera itzuli”.



Gaztetasuna aitzakia

Daewoo-ko langileen batez-besteko adina 23 urtekoa da eta gazte izateak soldata baxuaren aitzakia moduan erabili du Zuzendaritzak. "Behin aurpegira esan ziguten gazte izanda zer nahi genuen, langile trebatuak nahi izanez gero kontratatu eta ondo ordainduko zituztela, baina esperientzia gabekook ez genuela gehiago merezi" azaldu du Alfonso Zarco enpresa batzordeko kideak. Langileen ustez, eta enpresaren jarrerak erakusten duenez, Daewoo-k praktika-kontratuei ahalik eta probetxu gehien ateratzeko helburua zuen, eta horiek agortuta langileak kaleratu eta berriak hartzeko asmoa ere bai, "langile talde txiki bat mantendu eta besteak praktika-kontratuekin egotea da haiek nahi zutena".

Soldaten arloa konponduta hamaikatxo negoziaketa gai dau-de mahai gainean jartzeko, greba hasi denetik kanporatutako bi langileekin hasita, kategorien ezarpena arte. Izan ere, abuztuan bi langile kaleratu zituen Daewook, behin-behineko kontratua amaitutakoan, "eta datozen bi hilabeteetan 30 kontratu inguru berritu behar dira. Gainera, beste horrenbestek hilabeteak daramatzate kontratua sinatzeko zain, aurrekoa luzatu zaien edo zehaztugabea egin dieten jakin gabe".

Horretaz gain, langileek beste hainbat puntu dituzte negoziaketan agendan gorritzat: langileak mailaka sailkatzea da bat, behin-behineko kontratuak utzi eta finkoak egitea da beste bat, eta segurtasuna, horietako garrantzitsuenetakoa. Izan ere, produkzio erritmoa azkartzeko ez dituzte agindutako 700 langileak hartu, baina bai makinak trukatu arinago lan egiteko. "Jabeek ordenadoreaz baliatuz makinak horrenbesteko abiaduran jar daitezkeela esan, eta guk makinari jarraitu behar diogu, baina batzuetan hori ez da posible".

Alde egiteko mehatxua

Daewooko ugazabak haserre agertu dira langileek erdietsi elkartasunarekin eta jasotako kritikak ez dituztela ulertzen esan dute, beraiek "legea betetzen dutelako", eta horrela jarraitzekotan alde egiteko aukera ez dutela baztertzen adierazi.

Haserretu diren arren ospe txarraz gain langileekiko beren jarrera ez die inolako ondorio kaltegarrikerik ekarri, agindutako dirulaguntzak eta pizgarri fiskalak jasotzen segitzen dute-eta. Egia esan, erakundeek langileen alde egin duten gauza bakarra elkartasuna adierazi eta beren burua bitartekaritza lanerako eskaintzea izan da.

**"Behin aurpegira esan ziguten gazte izanda zer nahi genuen".
"Beharrean hasi baino ordu erdi lehenago lantegira joatea proposatu ziguten, denok elkarrekin ariketak egiteko".**



Elkar ulertze zaila

Grebalariek Daewoo etxeak Korean duen egoitzako langile eta sindikatuen elkartasuna jaso zuten lanuztea hasi eta berehala, "animoak eman dizkigute eta informazioa eskatu, beraiek ahal dutena presionatu eta lagunduko digutela esanez".

Jundizen lan egin ohi duten zuzendari korearrekin komunikazio ona lortzea, berriz, ez zaie horren erraza izan. Kultura ezberdina eta lana ulertzeko modu oso bestelakoa izateaz gain, "gure jarrera konprenitzeko inolako ahaleginik ez dute egiten". Korearrek ekialdeko kulturari jarraiki lana bizitzako gauzarik garrantzitsuenak dela uste dute, "beraz, lanaldi guztia jarraian egin ordez lantegian ahalik eta ordu gehien eman behar ditugula diote, lana baino ez dugulako buruan izan behar eta beharrean hasi baino ordu erdi lehenago lantegira joatea proposatu ziguten, denok elkarrekin ariketak egiteko".

Geurekin Mendira

1999/2000 Denboraldiko Egitasmoa

Aurreko lau denboraldietan bezala, 1999/2000 denboraldian ere hainbat txango aurreikusten dira. Hona hemen dugun asmoa laburbilduta:

TXANGOA	DATA	ARDURADUNAK
St ^a Elena/Arrigorrista	1999 - 10 - 24	Iñaki
Beriain	1999 - 11 - 21	Bego
Anboto	1999 - 12 - 19	Txipi
Xoxote/Erlo	2000 - 1 - 23	Joseba
Pinpil/Malkorra	2000 - 2 - 20	Maite
Atxorrotz/Kurtzebarri	2000 - 3 - 19	Bego
Vallegrull	2000 - 4 - 16	Kike
Txarlazo/Ungino/Eskutxi	2000 - 5 - 21	Maite/Txipi
Baiza (St ^a Marinatik)	2000 - 6 - 18	Bego



GEU GASTEIZ aldzkarian bestelakorik adierazi ezean, txango haven irteerak eta itzulerak Prado kalean (Txapela tabernaren aurrean) izango dira. Abiatzeko ordua: goizeko 9:30ak. Gerta liteke antolatzaileek egitarauan aldaketaren bat egitea. Horregatik komeni da ibilaldiaren xehetasunak baieztatzea, aldzkarian begiratzuz edo aurreko astean deituz Geuren egoitzara: 945 22 21 53.



KAMISETAK:

KUKUXUMUSU, KOT,
PERRETXIKOAK BASOAN, BARABÚ...

OPARIAK ETA EUSKAL OROIGARRIAK

EUSKAL OIHALAK: MANTELAK, ZAPIAK...

NONBAIT

Loma jeneralaren plaza, 5
Mateo de Moraza, 7

GASTEIZ

Tel./faxa: 945 232229
nonbait@nonbait.com

ZURE EUSKAL DEZAK

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42
GASTEIZ



SANTI

HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguai kalea 17
☎ 945 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97



JOSEBA
HARATEGIA

Paraguai merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 945 25 66 89
GASTEIZ



gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak



adaka
madinabeitia



Floridako
altxorra !

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundación

Agenda



Errege Atea, 9 · GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38




**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ



JATETXEA

Aiztogile kalea (Kutxi), 26 - tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ

**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Arabar Ikasleentzako Filme Laburren Gidoien Lehen Lehiaketa

D.B.H.ko arabar ikasleei zuzendua.

Antolatzailea: S.A.M.A. (Pedro Asua, 2 - 3.a)

Tfnoa: 945 24 46 03

Lanak aurkezteko epea: Abenduak 11 (euskaraz zein gaztelaniaz).

Soziolinguistika Ikastaroa

Antolatzailea: GEU Elkarte

Tfnoa: 945 22 21 53

Azaroak 6, 13 eta 20.

Kultur Etxean. Goizeko 9:30etatik 13:30etara.

Mendebaldeko Sahara

Bake prozesua eta esperientzia pertsonalak

Antolatzailea: GEU Elkarte, BAGARE Euskal Tokia eta

Euskadiko SEADen Lagunen Elkarte

Azaroak 11. Bagaren arratsaldeko 20:00etan.

Gasteizko Antzerki Jaialdia

TXALO PRODUKZIOAK: "Celimene eta Kardinala"

Urriak 23 - Principal Antzokian.

JOSU MUGICA DANZA: "Gogoaren hegala"

Urriak 23 - Hegoalde Gizarte Etxea.

TAUPADA: "Mari Sorgin"

Urriak 29 - Ipar-Arriaga Antzokian.

MASKARADA ANTZERKIA: "Izarretako bitakora"

Urriak 30 - Hegoalde Gizarte etxean.

Arabako Urtxintxa Eskola

- Astialdiko Begiralea eta Zuzendaria

Informazio tfnoak: 945 25 14 28 - 94 432 04 45

- Sexu Heziketako eta Familia

Planifikazioko Begiralea

Informazio tfnoak: 945 25 14 28 - 94 432 04 45

Euskharan. Ikasturte honetarako euskarazko kultur eskaintza

Euskharan Kultur Elkarte (Amaia Zentroa)

B. Pz. Galdos, z/g - Tfnoa: 945 28 82 75



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

1 x 2 = 2

(2.000 gara / 4.000 izan gaitzezke)

**... EGIN ITZAZU
HARPIDEDUN**

HARPIDEDUN!: zure aita, ama, arreba,
izeba, osaba, lehengusua, lehengusina, semea,
alaba, aitona, amona, iloba, berramona,
berraitona, biloba, aitaginarreba,
amaginarreba, suhia, erraina, lagun eta
ezagunak...

Izen Deiturak: _____

Helbidea: _____

P.K.: _____ Tfnoa.: _____

Herria: _____

Jaiotze Data: _____

Lanbidea: _____

Kontu zenbakia (20 zenbaki) Titularra, _____


Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia _____

Geu Gasteiz Aldizkaria. Pedro Asua, 2. 3a
01008 - Gasteiz. Tfno: 945 22 21 53

EZ GALDU OPORRAK EUSKARAZ
BIZITZEKO AUKERA
ETA EGIN ZAITEZ GEU GASTEIZ
ALDIZKARIKO HARPIDEDUN!!!

**EUSKARAZ IRAKURTZEA
EUSKARAZ BIZITZEKO
PARADA DELAKO!!!**

Txeroki



**HONAKO BULEGO HAUETAN BADAGO EUSKARAZ HARTUKO ZAITUEN LANGILERIK**

BULEGOAK	ZERBITZUA	Helbidea	Tfnoa.
Udaletxea	Udal informazioa Argibideak eta Erregistroa Errola Funtzio Publikoa Gazteen Argibide Bulegoa Idazkaritza Prensa Bulegoa Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1	010 16 11 88 16 11 06 16 11 41 16 13 30 16 13 20 16 13 37 16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Dato kalea, 11 Dato kalea, 11	16 16 68 16 11 33
Udala (S. Prudentzio kalea)	Gizartegintza Arkitektura Ingurugiroa	S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30	16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udala (Etxanobetarren etxea)	Emakumeentzako Zerbitzua Euskara Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11 Sta. Maria kalea, 11	16 13 25 16 15 22
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 87
Kultura	Argibideak	Goiuri jauregia (Villa Suso)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11
Gizarte Etxeak	Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Aldabe	Alberto Shommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Sefarad plaza, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Eulogio Serdan Pasabidea, 2	16 18 80 16 17 50 16 17 40 17 17 81 16 19 19
Montehermoso Kulturunea	Argibideak	Frai Zacarias kalea, 2	16 18 30
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Zerbitzua Kontzientzia Eragozpena Kirola Europar Mugimenduaren E.K. Elkarte eta Bolondresentzako Z.	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31 16 12 61 16 36 91 16 15 61 16 15 57 16 19 48
Udaltzaingoa	Administrazioa Antolakuntza	Agirrelanda, 8 Agirrelanda, 8	16 14 58 16 16 60
Turismo bulegoa	Argibideak	Dato, 11	16 15 99

A large, leafy tree with a street lamp and a person in the background.

UDAZKENEAN ERE

IRAKUR EZAZU
GEUGASTEIZ aldizkaria

Pedro Asua, 2 - 3. • 01008 GASTEIZ

Tfnoa. eia Faxa: 945 22 21 53 - e-mail: geugaste@grn.es

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa